Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com


Ramon Unanue Olaizola

Deba, Gipuzkoa
(1927-2021)

Aurkibidea



Biografia



Itziarko Lastur auzuneko Olano baserrian jaiotakoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Endoia auzuneko Uztapide baserrikoa, 'Uztapide' bertsolari ezagunaren arreba. 13 anai-arreba izan ziren, baina bederatzi bizi izan ziren, lau umetan hil baitziren gaixotasun ezberdinen ondorioz. Umetan, Endoia auzunean ibili zen eskolan, Arroako (Zestoa) maistra batekin. 13 urterekin Deustuko Unibertsitatera bidali zuten gurasoek eskola pixka bat eta gaztelania ikas zezan. Urtebete egin zuen bertan, gerrateak egindako kalteak konpondu eta eskola ikasten. Baserriko lanetan ibili izan da beti, baina negu partean basoan ere lan egina da. Endoia auzuneko Ziolar baserriko Santa Makazagarekin ezkondu zen. Olano baserrian bizi izan da beti.

Zintak

DEB-007

- **Proiektua**: Patxi Aldabaldetreku beka 2003
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dorronsoro, Nagore
- **Data**: 2003-02-19
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber

DEB-050

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2011-11-09
- **Iraupena**: 75 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

DEB-051

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2011-11-09

- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

DEB-052

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2011-11-09
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. 'Uztapide' bertsolari ezaguna, osaba

- **Erref**: DEB-007/001
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
75 urte ditu. Aita bizi ziren baserri bertakoa zuen eta ama, berriz, Endoiako Uztapide baserrikoa. Ramonen ama Manuel Olaizola Uztapide bertsolari ezagunaren arreba zen. Zortzi senide ziren amaren familian eta izendatu egiten ditu.

2. 'Uztapide'ren bizitza

- **Erref**: DEB-007/002
- **Iraupena**: 0:04:39. **Hasi**: 00:03:18. **Bukatu**: 00:07:57

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bertsolari familiakoak izan arren, ez dute bertsotarako zaletasunik. Hizketan erantzun bizkorrak ematen ditu Ramonek, baina bertsorik ez. Bertsolari handia zen Manuel Olaizola Uztapide, eta haren familia eta inguruari buruz hitz egiten du.

3. Endoia bi zatitan banatuta: Zestoa eta Deba

- **Erref**: DEB-007/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:07:57. **Bukatu**: 00:09:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Endoia auzoa, bi zatitan banatzen da: errepideaz ezkerrera dauden baserriak

Zestoakoak eta eskubira daudenak Debakoak. Ekaingo koba ospetsuak Endoiatik gertu aurkitzen dira. Debako baserriak eta bertakoak aipatzen ditu.

4. Eskolara Endoiara

- **Erref**: DEB-007/005
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:11:34. **Bukatu**: 00:13:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Eskolara Endoiara joan zen lehenengo. Irakaslea etxeetara joaten zen eta gai garrantzitsuena dotrina zen. Eskola ematen zuten baserriak eta ingurua aipatzen ditu.

5. Ganaduaren eta ikuiluaren antolaketa

- **Erref**: DEB-007/007
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:19:09. **Bukatu**: 00:22:58

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ramonek behiak, txahalak eta ardiak ditu etxean. Lehenago esne-behiak zituzten eta esnea ateratzen zuten. Ganaduaren eta ikuiluaren antolaketa, belar-bolak nola egiten dituzten eta prozesua azaltzen ditu.

6. Esnea: kalean garesti, baserrian merke

- **Erref**: DEB-007/008
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:22:58. **Bukatu**: 00:24:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Orain ez dute esne-behirik, etxerako kontsumorako bakarren bat soilik eta haragitarako erabiltzen dituzte. Esnea kaleko prezioarekin alderatuta oso gaizki ordaindua dago eta saldu aurretik azterketa ugari egin behar izaten zaio, gainera.

7. Esne motak eta saldu aurretiko neurriak

- **Erref**: DEB-007/009
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:28:07

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Esne mota ezberdinak eta saldu aurretik lantegiek hartzen dituzten neurriak azaltzen ditu. Esne lantegi batera joan zen zenbaitetan Ramon hango martxa ikustera. Etxean lanean jardunda diru gutxi ateratzen zuten esnetik eta uztea erabaki zuten.

8. Haragitarako behiak etxean

- **Erref**: DEB-007/010
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:28:07. **Bukatu**: 00:28:50

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Haragitarako behiekin hobeto moldatzen dira etxean, ez dute esnetarakoek adina lan ematen eta. Egunero egiten du Ramonek traktorean buelta etxe inguruko belardietara.

9. Baratzeko lanak

- **Erref**: DEB-007/014
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:35:14. **Bukatu**: 00:39:04

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Baratzean etxerako adina egiten dute, denetik pixka bat. Baratzeko jakiei buruz hitz egiten du. Oiloak ere badituzte, baina ez dituzte saltzen, gaur egun salmentarako eskakizun ugari baitago.

10. Eguneroko jana baserritik lortua

- **Erref**: DEB-007/015
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:39:04. **Bukatu**: 00:43:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Haragia eta etxeko jana ez dute kaletik erosi behar, baserritik ateratzen dute eguneroko bizimodua egiteko adina. Ganadua hiltzera hiltegira eramaten dute etxean hiltzea debekatua baitago. Txerria ere hiltzen dute. Garai batean kutxa batean ekarri eta gatzetan kontserbatzen zuten haragia.

11. Azokara saltzera 13 seme-alaba aurrera ateratzeko

- **Erref**: DEB-007/020

- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:51:47. **Bukatu**: 00:53:47

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Ramonen ama Debara, Azpeitira eta inguruetara joaten zen azokara saltzera. Gazteak neskame, basoko lanetara edo morroi joaten ziren. Ramonen etxean 13 anai-arreba izan ziren eta haiek mantentzeko kalera joan behar saltzera.

12. Auzolanean errepidea eraiki zutenekoa

- **Erref**: DEB-007/021
- **Iraupena**: 0:05:45. **Hasi**: 00:53:47. **Bukatu**: 00:59:32

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Orduan basoan lan asko egiten zen. Zuhaitz ezberdinak aipatzen ditu. Ogia egiteko okinari egurra txikitu eta prestatzen zien. Errepidea ere auzolanean egin zuten idiekin baserritarren artean eta ezerezaren ordainean. Errepidea egin zutenekoa kontatzen du. Egurra nola lantzen zuten eta gero arotzei saldu.

13. Gariaren ordainetan ogia

- **Erref**: DEB-007/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:59:32. **Bukatu**: 01:01:02

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Txondorra egin eta ikatza saltzen zuten. Garia okindegira bidaltzen zuten irina egiteko eta ordainetan ogia lortzen zuten. Egurra, berriz, toneladaka ordaintzen zieten.

14. Arto-zuritzen auzolanean

- **Erref**: DEB-007/023
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:01:02. **Bukatu**: 01:02:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Orduan ez zen labe elektrikorik, egurrezko labeak ziren. Ogia egiteko labea bazen Ramonen etxean, ohitura handia zegoen. Soroaren erdia artoa

eta beste erdia garia egiten zuten. Kuadrillan juntatu eta arto-zuritzen aritzen ziren.

15. 'Uztapide'ren ipuinekin, arto-zuritzen

- **Erref**: DEB-007/024
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:02:42. **Bukatu**: 01:04:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Kontuak eta ipuinak kontatuz aritzen ziren arto-zuritzen. Manuel Olaizola Uztapide ere han egoten zen, eta izaten zuen istorio eta ipuinik Ramoni eta etxekoei kontatzeko. Uztapideri buruz hitz egiten du.

16. Neguan basoan eta udan etxeko laboreetan

- **Erref**: DEB-007/025
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 01:04:32. **Bukatu**: 01:06:21

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Etxean idiak izaten zituzten lanerako eta abere gutxi, ez baitzegoen dirurik hauek erosteko. Neguan mendira basoa ateratzera joaten ziren eta udan etxeko laboreetan jarduten ziren. Orduko pasadizo eta ibilerak, azokara joan eta lagun artean ibiltzen zirenekoak.

17. Kotxerik ez eta kalera oinez

- **Erref**: DEB-007/026
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 01:06:21. **Bukatu**: 01:06:54

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Kotxerik ez zen artean eta Azpeitira eta inguruko herrietara oinez joaten ziren. Autobusez ere ibiltzen ziren, baina gerora kotxea azaldu zen eta denak hala mugitzen ziren.

18. 18 hilabetez soldadutzan

- **Erref**: DEB-007/027
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 01:06:54. **Bukatu**: 01:09:12

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
21 urterekin soldadutzara joan eta 18 hilabete egin zituen. Errepiden eta eliza egiten ibili zen Ramon. Ez zieten diru laguntzarik ematen eliza egiteko, bailarakoen artean egina dago.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com